

## **ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINTZA**

### **Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)**

**2023-2024 denboraldia**  
**(2023/10/02tik 2024/09/29ra)**

**50. astea (2023/12/11-2023/12/17)**

***Gripe-birusaren zirkulazioak handitzen jarraitzen du. COVID-19aren intzidentziaren igoera aste honetan eten egin dela dirudi eta ABSren detekzioek behera egin dute.***


- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 602,8 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (350,8/100.000 aurreko astean).
- Lehen Mailako Arretan, gripe-sindromearen tasak nabarmen egin du gora eta bronkiolitisarenak, aurreko astearekin (bi jai egun zituena) alderatuta gora egin arren, duela bi astekoa baino baxuagoa izan da.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 90 lagin jagoleen % 62,2 baieztatu da, SARS-CoV-2 bat (positibotasuna % 1,1), 27 gripe-birus (positibotasuna % 30,0) eta 7 ABS (positibotasuna % 7,8) atzeman direlarik. 17 errinobirus ere detektatu dira (positibotasuna % 18,9).
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 20,6 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (18,7/100.000 aurreko astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman, aste honetan, 204 SARS-CoV-2, 384 gripe-birus eta 227 ABS erregistratu dira.

## AIA Lehen Mailako Arretan

### Zaintza sindromikoa


Zaintza honen esker, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 602,8 kasukoa izan da (350,8/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 507,7/100.000 izan da Araban, 601,0/100.000 Bizkaian eta 649,4/100.000 Gipuzkoan.

**AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arreta-sarea. 2023-2024, EAE**



Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena 0-4 urtekoen adin-taldean eman da 2605,7 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5-14 urtekoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 819,0 kasurekin. Aurreko astearekin (bi jai egun zituen) alderatuta, tasek gora egin dute adin-talde guztietan.

**AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE**



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasek gora egin dute ere ESI guztietan aurreko astearekin alderatuta.


**AIaren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE**

ESI	Tasa 50. astea	Tasa 49. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	549,8	260,6	2,11 (1,94-2,30)
Arabar Errioxako ESI	971,4	468,6	2,07 (1,51-2,84)
Barakaldo-Sestaoko ESI	524,0	260,0	2,02 (1,77-2,30)
Barrualde-Galdakaoko ESI	604,8	380,5	1,59 (1,48-1,71)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	640,0	378,3	1,69 (1,58-1,81)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	641,1	383,4	1,67 (1,51-1,85)
Uribeko ESI	505,0	275,2	1,84 (1,66-2,02)
Bidasoako ESI	480,3	382,9	1,25 (1,08-1,46)
Debararrenako ESI	732,4	414,3	1,77 (1,54-2,03)
Debagoienuko ESI	506,6	287,7	1,76 (1,47-2,11)
Donostialdeako ESI	627,7	371,6	1,69 (1,58-1,81)
Goierrri-Urola Garaiaiko ESI	777,5	483,8	1,61 (1,43-1,80)
Tolosaldeako ESI	650,3	429,4	1,51 (1,30-1,76)

Gripe-sindromearen tasak nabarmen egin du gora aste honetan eta 30,4 kasu 100.000 biztanleko balioan kokatu da (10,2/100.000 aurreko astean).

Bronkiolitisen tasa (2 urtetik beherakoetan) 1164,6 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (918,5/100.000 aurreko astean). Honek aurreko astearekiko tasa igoera bat adierazten du, baina tasa duela bi astekoa baino baxuagoa delarik.


**Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE**



## Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIaren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIarako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 90 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 62,2 baieztatu dira. SARS-CoV-2 bat, 27 gripe-birus (21 AH1pdm09 eta 5 AH3) eta 7 ABS atzeman dira. 17 errinobirus ere detektatu dira.

**AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoen arabera. 2023-2024, EAE**



SARS-CoV-2aren positibotasunak behera egin du eta % 1,1eko balioan kokatu da (% 8,0 aurreko astean). Gripe-birusaren positibotasunak berriro gora egin eta % 30,0ra heldu da (% 28,0 aurreko astean) eta ABSrena % 7,8ra jaitsi da (% 16,0 aurreko astean). Errinobirusaren positibotasuna % 18,9koa izan da (% 24,0 aurreko astean).

**Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2023-2024, EAE**


	50. astea		49. astea		2023-2024 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	27	30,0	7	28,0	65	12,1
SARS-CoV-2	1	1,1	2	8,0	34	6,3
ABS	7	7,8	4	16,0	62	11,5
Metaneumobirus	3	3,3	0	0,0	6	1,1
Parainfluenza	1	1,1	1	4,0	17	3,2
Adenobirus	1	1,1	0	0,0	13	2,4
Errinobirus	17	18,9	6	24,0	154	28,6
Urtaroko CoV	1	1,1	0	0,0	15	2,8

## AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean

### Zaintza sindromikoa


AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratorzen direnak. AIAL tasa 20,6 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (18,7/100.000 aurreko astean), 18,7/100.000 emakumeetan eta 22,7/100.000 gizonetan.

AIAL tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.  
Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE



Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 5 urtetik beherakoen adin-taldean eman da, 72,0 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 64 urtetik gorakoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 57,0 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek gora egin dute 5 urtetik beherakoetan, 15-44 urteko adin-taldean eta 64 urtetik gorakoetan.

AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.  
Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE




## AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. Gripe-birusaren positibotasuna % 20,0raino igo da aste honetan (% 12,2 aurreko astean). SARS-CoV-2rena, aldiz, % 8,6ra jaitsi da. ABSren positibotasuna % 28,2an mantendu da eta errinobirusarena % 16,7koa izan da.

**Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE**

	50. astea		49. astea		2023-2024 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	336	8,6	307	11,4	2427	11,7
Influenza	325	20,0	294	12,2	2141	9,7
ABS	273	28,2	253	28,9	1724	24,5

**Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, CAE**



## Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 204 SARS-CoV-2, 384 gripe-birus eta 227 ABS detektatu dira azken astean.


Aste honetan detektatutako 384 gripe-birusetatik, 315 azpitipatu gabeko A motakoak izan dira, 12 A(H3), 56 A(H1)pdm09 eta B motako bat. 2023/40 astetik 1220 detekzio erregistratu dira, 1209 (% 99,1) A motakoak eta 11 (% 0,9) B motakoak. Azpitipatutako A motako 299 birusetatik, 52 (% 17,4) A(H3) eta 247 (% 82,6) A(H1)pdm09 izan dira.

Azken hilabetean, SARS-CoV-2ren jarduerak txikia izaten jarraitzen du, eta 184 andui sekuentziatu dira Euskadin. Mundu mailan aintzatetsitako intereseko lau aldaerak gure inguruan dabilta, eta haiek eta haien ondorengo leinuak aztertutako kasuen % 89 dira Euskadin. EG.5 intereseko aldaerak eta haren ondorengoek, azken eguneraketara arte ugariena zenak, aztertutako anduien % 25 biltzen dute. Mundu-mailan, EG.5 da gehien gailentzen den interes-aldaera, eta osasun publikorako arrisku txikikotzat jotzen da.

Azken txostenetik izan den aldaketarik esanguratsuena BA.2.86 aldaeraren eskutik dator. Urrira arte BA.2.86 zaintzapeko aldaeratzat hartu da, baina mundu mailan gero eta jarduera handiagoa duenez, azarotik aurrera intereseko aldagaitzat hartzen da. Euskadin, BA.2.86 eta haren ondorengo JN.1 aldaera ugariena izatera igaro dira aztertutako anduien % 50 direlarik. Egoera Europar Batasuneko herrialde gehienentzat antzekoa da, aldaera horren jarduerak hazten jarraitzen baitu. EG.5 bezala, BA.2.86 osasun publikorako arrisku txikikotzat jotzen da.

XBB.1.5 eta XBB.1.16 intereseko beste bi aldaeren jarduerak beheranzkoa izaten jarraitzen du gure ingurunean (% 15 eta % 1,6, hurrenez hurren).

**Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2023-2024, EAE**




### COVID-19aren egoera

60 urte edo gehiagoko populazioan, 50. astean, COVID-19aren 7 eguneko intzidentzia-tasa 19,3 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (19,6/100.000 aurreko astean); 18,6 gizonetan eta 19,8 emakumeetan.

Osakidetzaren ospitale-egoeraren adierazleetatik lortutako datuen arabera, aste honetan 59 paziente ospitaleratu dira EAEn COVID-19agatik<sup>1</sup> (65 ospitaleratu aurreko astean), 32 gizon eta 27 emakume. Ospitaleratutako pertsonen % 86,4 60 urtetik gorakoa zen.

<sup>1</sup> Txostenaren argitaratze datako behin behineko datuak

**COVID-19agatik gertaturiko ospitaleratzeen kopurua eta tasa, aste epidemiologikoaren eta adinaren arabera. 2023-2024, EAE**



Urteko 50. astean, COVID-19 21 kasu berri erregistratu dira EAeko adinekoen egoitzetako erabiltzaileen artean (16 aurreko astean). Kasuak dituzten zentro soziosanitario kopurua 14 izan da, aurreko astean baino bat gutxiago.

Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB)

**2023ko abenduaren 20an**

**Zaintza Epidemiologikoa  
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza**